

**JARRAIPEN TXOSTENA.
HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA**

Kurtoa 17-18

JARRAIPEN TXOSTENA

IZGH 2500586 - HAUR HEZKUNTZAN GRADUATUA

KURTSOA: 17-18

ARDURADUN ZENTRUA: HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

DATA: 2019-02-28

Indizea

1.-SARRERA	4
1.1 TESTUINGURUA	4
1.2 DOKUMENTUAREN EGITURA	4
2.- TITULUA BALIOESTEIA	5
I. DIMENTSIOA: TITULUAREN KUDEAKETA.....	5
II.- DIMENTSIOA: BALIABIDEAK.....	14
III.-DIMENTSIOA: EMAITZAK.....	19
3.-HOBKUNTZA PROPOSAMENAK ETA INDARRAK (Barne Kudeaketa)	21
III.1.HOBKUNTZA PROPOSAMENEN JARRAIPENA.....	21
III.2. TXOSTEN HONETAN IDENTIFIKATUTAKO HOBKUNTZA PROPOSAMENAK.....	22
III.3. IDENTIFIKATUTAKO INDARGUNEAK	22
4.- TITULUAN EGINDAKO ALDAKETAK	23
IV.1. EGIAZTAPEN-/BAIMEN-TXOSTENETAN GOMENDATUAK	23
IV.2. JARRAIPEN TXOSTENETAN GOMENDATUAK.....	23
IV.3 ZENTRO ARDURADUNAREN EKIMENEZ EGINDAKOAK	23
I ERASKINA.ADIERAZLEAK.....	23

1.-SARRERA

1.1 TESTUINGURUA

Gradu hau 2009-2010 ikasturtean ezarri zen eta 2010-2011 ikasturtetik aurrera urtero bidali dira dagozkion jarraipen txostenak Unibasq-era. 2010-2011 eta 2015-2016 ikasturteetan txostenen ebaluazioak jaso ziren.

1.2 DOKUMENTUAREN EGITURA

2013-2014 ikasturtean jarraipen txostenen egitura aldatu genuen, egitura hau akreditazio txostenen egiturara hurbiltzen da, honela jarraipen txostenen eta akreditazio prozesuen erlazioa eta koherentzia bermatuz. Akreditazio txostena, azken lau urteetako jarraipen txostenen edukiaren bidez osatu ahal izango da eta titulazioaren bilakaera osoaren ikuspegia izango du.

Honela, 2014-2015, 2016-2017 eta 2017-2018 ikasturteko Jarraipen Txostenak egitura berdinarekin arabera gauzatu dira.

Bestalde, kontuan izan dugu Unibasq-ek 2016ko martxoaren 9an ateratako ebazpena eta eguneratu dugu protokoloa honek eskatzen dituen eduki eta adierazleekin.

Txostenean hiru dimentsio aztertu dira, lehenik alderdi kualitatiboak dagokionez eta ondoren alderdi kuantitatiboak kontuan izanda. Jarraian, hobekuntza proposamenen eta indarraldien jarraipena egin da. 4. puntuan tituluan egindako aldaketak jasotzen dira eta azkenik adierazleen azterketa egiten da.

2.- TITULUA BALIOESTEA

I. DIMENTSIOA: TITULUAREN KUDEAKETA

I.1.-IRIZPIDEA: ANTOLAMENDUA ETA GARAPENA

I.1.1.-Ikasketa-planaren ezarpena eta programaren antolamendua egiaztapen-memorian eta/edo geroago egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako helburuen profilarekiko koherenteak dira.

Graduaren ezarpenetik, 2009-2010, eta ondorengo ikasturteetan programaren antolamenduan beti erabili da erreferentzia gisa egiaztapen memoria.

2012-2013 ikasturtean egindako aldaketak erdi-presentzialeko modalitatea jarri zuten martxan eta memoria erabili da programaren antolamenduaren erreferentzi gisa.

Materien sekuentziarioak erantzuten dio murgiltze progresiboari; hau da, materiak antolatzen dira orokorretik espezifikora betiere ikaslearen sarrerako profila kontuan izanik. Sarrerako ikasleen profila hurrengo da: ikasleak gurera datoz hasierako formazioa jasotzera; goi maila aurreko ikasketetatik datozenak dira hain zuzen ere. Hori dela eta, gure ikasketa plangintza antolatuta dago progresiboki gure ikasleak etorkizunean irakasle gisa aritzeko (HO21303IZGH/HO21303 IZGL).

Praktikak 3 ikasturtetan banatzen dira, 2., 3. eta 4. mailan, eta ikasturte bakoitzak helburu konkretu bati erantzuten dio. Hala ere, helburu orokorra da irakasleek beraien profil pertsonal zein profesionala eraikitzea. Bigarren mailako praktiketan ikasleak irakasle profila eraikitzen hasten dira (ikastetxe motak ezagutu, behaketa orokorrak esanguratsuak egin). Hirugarren mailan, didaktika espezifikoak aztertuko ditu eta horren bidez ere osatuko du etorkizuneko irakasleak bere profila. Laugarren mailan aldiz, ibilbidearekin lotura berezia eginez, ikasleak bere profil profesional zein pertsonala eraikiko du. Ikasturte bakoitzeko practicumak badu bere materia propioa egonaldiarekin lotura duena, baina, horietaz gain, beste materia guztietan egiten da practicumarekiko lotura ezplizitua.

Profil profesionala eta pertsonala garatzeko ikasleek beraien praktiketan identifikatzen dituzten abileziak hobetzeko edota profil profesionaleko konpetentziak indartzeko lana da.

Ikasleek urtero dute ikasturtearen ikuspegi orokor bat, izan ere, ikasketa plana ikasleekin partekatzen da kurtso hasieran.

Aurretiaz aipatutako guztia tutore bilera, mintegi eta koordinazio orokorrean partekatu eta aztertzen da.

Gradu honetan ibilbide curricularra hautatutako aipamenaren arabera da. Aipameneran aukeraketarako tutoretzak eskaintzen dira aipamenetako

koordinatzaileekin ikasleak horrela eskatuz gero. Aukera dago aipamen aldaketak ere eskatzeko ikaslearen ongizaterako eta graduko koordinazio bileretan aztertzen dira eskaerak.

Fakultateko hezkuntza proiektuaren oinarrizko ezaugarria da talde txikitan lan egitea metodologia aktiboen (talde lana, arazoan ebazpenak, kasuen azterketak, projektuka lan egitea...) erabilera bermatzeko eta ebaluazio jarraia sustatzeko, ikasleari gertuko bidaidetza eskainiz. Horren ondorioak dira errendimendu adierazleetan ditugun aldeko emaitzak.

Modalitate erdi-presentzian, 2012an egokitutako memoria erabili da programaren antolamenduaren erreferentzi gisa.

I.1.2.-Definitutako egreso-profilak garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren, zientifikoaren eta profesionalaren baldintzen arabera eguneratuta dago.

Barne Kalitate Sistemako O prozesuak eta PR0 prozedurek, ahalbidetzen dute egreso-profilaren inguruko hausnarketa. Honela eta 2009-10 ikasturte ondoren egindako memoria aldaketan eguneratu da egreso profil hau.

I.1.3.-Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaitzak lortzea ziurtatuz.

Graduko koordinaziorako egitura eta kudeaketa mekanismoak hurrengoak dira:

Graduko Batzordea: Graduko Batzordea Graduko koordinatzaileek osatzen dute, gure antolaketan dauden hezkuntza-esparru desberdinen beharrak eta sentsibilitateak jaso ahal izateko. Graduko Batzordeak bere funtzioak aintzat hartuz lan desberdinak garatzen ditu; funtzio horiek, hauek dira:

- Graduari dagokion curriculumak garatzea, jarraitzea, eta ebaluatzea bere koherentzia eta xedeak ziurtatuz.
- Graduan arituko diren irakasle eta tutore guztien arteko komunikazioa eta koordinazioa bermatzea, beraien partaidetza bultzatuz.
- Graduan Ibilbideen arteko komunikazioa eta koordinazioa bermatzea.
- Graduko ikasleen asetasun maila ona lortzea beraiekin elkar arteko komunikazioa ziurtatuz eta beraien partaidetza indartuz titulazioaren kalitatea bermatzeko.
- Orientazio saioen antolaketaren proposamena egitea eta ekintzak antolatzea.
- Fakultatearen zabalpenean eta ikasleak erakartzeko egiten diren jardueretan (Katalogoen errebisioa, ate irekiak, titulazioekin loturiko berrien jarraipena, literatura astea...) parte aktiboa hartu, horien jarraipena eta balorazioa eginez.
- Graduan eragina izan ditzaketen gaiak eta erronkak identifikatu, horiek garatzeko edota gainditzeko behar diren proposamenak eginez.
- Tutoretza prozesua garatzea eta ebaluatzea, behar diren neurriak proposatuz tutoretza prozesua era egokian garatzeko (ikasleen beharren eta interesen ikuspuntutik, Graduko Ikasleen arduradunarekin koordinatuz).
- Graduan eragina edota esku-hartzea duten Zerbitzuetako langileekin komunikazioa eta koordinazioa bermatzea.

- Praktiken Taldean parte hartu eta graduaren ikuspegi globala bermatzea praktikei dagokienez.
- Ikasleen ebaluazio saioak antolatu, koordinatu eta ondorio nagusiak Gradu Lan-taldera eraman.
- AUDITen inplementazioa bermatzea graduari.

Eskaintza erdi-presentzialaren kasuan hauek dira batzordearen funtzioak:

- Graduari dagozkion kudeaketa pedagogikoa eta baliabideen kudeaketa egitea.
- Kudeaketa pedagogikoa: Gradu curriculumaren garapena, jarraipena, ebaluazioa eta berrikuntza ziurtatzea hezkuntza proiektuarekin koherentzian.
- Graduaren eragina izan dezaketen gaiak eta erronkak identifikatu, horiek garatzeko edota gainditzeko behar diren proposamenak eginez.
- Harrera astea: Ikasturtearen hasiera kudeatzea.
- Tutoretza: Tutoretza prozesua garatzea eta ebaluatzea, behar diren neurriak proposatuz tutoretza prozesua era egokian garatzeko (ikasleen beharren eta interesen ikuspuntutik).
- Ebaluazioa: Ikasleen ebaluazio saioak antolatu, koordinatu eta ondorio nagusiak Gradu Lan-taldera eraman.
- Tutore mintegiak: curriculumaren garapenaren ebaluazioa eta berrikuntzari begira mintegiak antolatzea.
- Koordinazioa:
 - Jakintza lerroetako koordinatzaileekin koordinazioa bermatzea.
 - Graduaren ibilbideen arteko komunikazioa eta koordinazioa bermatzea.
 - Praktiken Taldean parte hartu eta graduaren ikuspegi globala bermatzea praktikei dagokienez.
 - Graduaren eragina edota esku-hartzea duten Zerbitzuetako langileekin komunikazioa eta koordinazioa bermatzea.
- GBL: Gradu Bukaerako Lanaren prozesua (egutegia, baliabideak eta defentsak) antolatzea.
- Asetasuna: Gradu ikasleen asetasun maila ona lortzea beraiekin elkar arteko komunikazioa ziurtatuz eta beraien partaidetza indartuz titulazioaren kalitatea bermatzeko.
- Kaptazioa: Fakultatearen zabalpenean eta ikasleak erakartzeko egiten diren jardueretan (Katalogoen errebisioa, ate irekiak, titulazioekin loturiko berrien jarraipena, literatura astea...) parte aktiboa hartu, horien jarraipena eta balorazioa eginez.
- Orientazioa: Orientazio saioen antolaketaren proposamena egitea eta ekintzak antolatzea.
- Baliabideen kudeaketa: Irakasle eta tutore guztien harrera, komunikazioa eta koordinazioa bermatzea. Graduaren garapenerako espazioa eta ordutegiaren antolaketa egitea.
- AUDITen inplementazioa bermatzea graduari.

Graduko Batzordea astero biltzen da, eta bilera hauen funtzioa hirukoitza da: alde batetik, eguneroko kudeaketa behar edota sortzen diren gaien erantzuna eman; beste alde batetik, Graduaren jarraipena -ikasleen zaintza, materiaren garapena, irakasleen arreta...- ziurtatu; eta azkenik, epe erdira behar diren ekintzak eta jarduerak planifikatzea.

Jarraipen taldeak; hauek Graduoko batzordeetako kideek ikasleen ordezkariekin elkartuz, beraien nahiak, kezkak, proposamenak... jasotzeko eta lantzeko erabiltzen ditugu.

Jardun Pedagogiko eta Ikerketa egunak; irakasleei zuzenduta daude hauek, eta Graduotan dauden interesak eta beharrak kontuan hartuz, definitzen dira bertan landuko diren gaiak. Mintegi hauen bidez koordinazio horizontala eta bertikala bermatzen da ikasketa planeko materia ezberdinen artean.

Materietako koordinazio bilerak; hauek ez dira Graduoko batzordearen erantzukizun zuzena, baina horien jarraipena egiten da, irakasleek egiten duten Materien Ebaluazioaren bidez. Aldi berean, Tutore mintegietarako ere baliagarriak dira bai aipatutako koordinazioak (horizontala zein bertikala) ziurtatzeko, baita ager daitezkeen gaiak lantzeko, etengabeko formaziorako bide izanik.

Materietako/Moduluetako koordinatzaileen taldeko bilerak (MKT): Bilera hauen bidez materien arteko koordinazio sendoagoa ziurtatzeko erabiltzen da. Aldi berean, Graduoko batzordearen jarraipena zein begirada orokorra bermatzeko foroa da.

Beste alde batetik, Graduoko Batzordeko kideek fakultate mailako beste organo/foro batzuetan ere parte hartzen dute, horietan jasotakoa asteroko Graduoko Batzordeko bilerara ekarriz eta bertan landuz:

Graduko Lan Taldea: honen bidez, Gradu desberdinen arteko behar diren elementu komunak lantzen dira.

Nazioartekotzaren taldean: ikuspegi zabalagoa izateaz gain, honen bidez, Atzerriko Praktikak, Erasmus Programa... kudeatzeko behar den koordinazioa, harremanak, elkar lanak... garatzen dira.

Kaptazio taldean: ikasturtean zehar, hurrengo ikasturteari begira dauden beharrak eta proposamenak identifikatzen dira, horietan (ate irekiak, azokak, bisitak zentroetara...) denon artean gauzatzeko.

Aurreko guztiarekin batera, ikuspegi orokor batetik, beste jarduera edo ekimen bat da aipatzekoa. Hezkuntza Graduotan dugun Tutoretza programa; era labur batean hau deskribatzeko, bere helburuak eta antolaketa jartzen dugu jarraian.

Tutoretza programaren helburuak

HUHEZIKo Hezkuntza Graduotatik aurreikusten diren helburuak 1. mailatik 4. mailara honako hauek dira:

1. HUHEZIn ikaslearen integrazioa erraztu eta bideratu.

2. Ikasleei ezagutarazi HUHEZIK eskaintzen dituen baliabideak (irakasle, zerbitzuak, espazioak, materiala...) eta, behar dutenean, erabiltzen lagundu.
3. Ikasle bakoitzaren ezaugarriak eta ikaste prozesuaren jarraipena egin konpetentziak (espezifikoak zein orokorrak) kontutan hartuz. Beharra balego, lagundu.
4. Ikasleari informatu ikasketak bukatutakoan zer nolako aukera ezberdinak izan ahal dituen, formaziorako, lan mundurako... eta zeintzuk diren kasu bakoitzean betebeharrak. Aldi berean, beharra balego, ikasleari lagundu erabakiak hartzerakoan.

Helburu guzti hauek ezingo dira landu maila guztietan. Kronograman batean zehaztuko da maila bakoitzari dagozkion helburuak zeintzuk diren.

Tutoretza Programaren Antolaketa

Programa honen hartzaileak Hezkuntza Graduetako ikasleak dira (HH eta LHkoak).

Jarraipen pertsonala eta akademikoa: hemen aipatzen den jarraipen akademikoak ez du ordezkatzeko Materietatik egiten den jarraipena eta tutorizazioa (Materien konpetentzien gainean). Hemen proposatzen da ikaslearen ibilbide akademiko-pertsonalaren jarraipena egitea ahalegintzea, ikuspegi globaletik.

Tutoretza programaren barruan egon daitezke jarduera batzuk hautazkoak izan daitezkeenak ikasleentzat.

Tutore eta ikasleen esleipena: maila bakoitzean irizpide ezberdinak erabiliko dira. Kasu guztietan saiatuko da ikasturte osoan egon daitekeen Materia batekin lotzea.

- 1. Mailan: 1.1 (Irakasle Profilarren Definizioa HHn/LHn) materiako irakasleak izango dira urte osoko tutoreak. Tutore bakoitzak ikasle talde oso bat izango du.
- 2. eta 3. mailan: 2.5 (Practicum I) eta 3.7 (Practicum II) materietako irakasleak izango dira ikasturte osoko tutoreak. Ikasle talde bakoitzari bi tutore esleituko zaio.
- 4. Mailan: 4.5 (Practicum III) materiako irakasleak izango dira ikasturte osoko tutoreak.

Tutoretza prozesuarekin batera, eta ikasketen amaieran izan ditzaketen irtenbideak ezagutzen joateko, 4. mailan Orientazio Saiok antolatzen dira. Bertan, gure inguruan duten eskola sare desberdinak aurkezten zaie; horrekin batera, Fakultatean ikasten jarraitzeko edota kanpoan -atzerrian- lanean aritzeko zein ikasketak egiteko egon daitezkeen bideak eta aukerak ere atzematen joateko informazioa eta laguntza eskaintzen zaie. Aldi berean, ikasle ohien testigantzak

jasotzen dituzte, egindako ibilbidea ezagutzeko eta euren kezak, zalantzak plazaratu ahal izateko.

I.1.4.-Aplikatutako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarrera-profil egokia izatea ahalbidetzen dute eta egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.

Memorian eskatzen diren irizpideak betetzen dira eta baita legediak ezartzen dituenak ere.

I.1.5.-Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetuz ahalbidetuz.

Graduko lehen araudi akademikoa 2009-2010 ikasturtean onartu zen, Mondragon Unibertsitatearen esparru-araudiaren eta une hartan indarrean zegoen legeriaren arabera. 2009-2010 ikasturtetik aurrera, eguneratuz joan da araudia (HO31403), bereziki 861/2010 Errege Dekretuak eta, Goi Mailako Hezkuntzan ikasketak baliozkotzeari buruzko 1618/2011 Errege Dekretuak eragindako lege-aldaketen ondorioz.

Indarrean dagoen araudia kasuan kasuko ikasturteko graduakoikasle guztiei aplikatzen zaie. Alde horretatik, araudi akademikoa aplikatzeari esker, bete egin daitezke errendimendu-adierazleei buruz jarritako helburuak.

I.2-IRIZPIDEA: INFORMAZIOA ETA GARDENTASUNA

I.2.1.-Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriei eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazio egokia eta eguneratua argitaratzen dute.

Fakultateak zenbait tresna ditu titulazio baten informazioa kudeatzeko eta zabaltzeko, fakultateko interes-taldearen arabera:

1.- Gizarteari, enplegatzaileei eta etorkizuneko ikasleei igorritako informazioa:

- www.mondragon.edu/huhezi webgunea: Webgunearen helburu nagusia gizarteak Fakultatea ezagutzea da. Informazio xehea ematen da eskaintzen diren ikasketei buruz, egiten diren jardueri buruz, dauden zerbitzuei edo fakultateko albisteei buruz. Ikasketei buruzko informazioa etorkizuneko ikasleei zuzendua da batez ere, eta, horregatik, aukeran den titulazio bakoitzari buruzko informazio guztia ematen da, xeheki eman ere. T

2.- Graduetan matrikulatutako ikasleentzako informazioa:

- *Intraneta*, www.intraneta.huhezi.edu, nondik ikasleek sarbidea baitute eskura dituzten baliabide birtualei buruz, hala nola: google apps, moodle plataforma birtualerako eta irakaskuntzako beste plataforma batzuetarako sarbidea, sareko fitxategietarako sarbidea, materiala erreserbatzeko gunea...

- Moodle plataforma birtuala irakaskuntzari laguntzeko oinarritzko tresna bat da. Titulazio bakoitzak bere ikasturtea taxutzen du, bere irakasgaiekin, eta irakasgaiotan hainbat hezkuntza-jardura izaten dira. Horrez gainera, bada "Ikasle Txokoa" izeneko atal bat, non ikasleek fakultateko informazio orokorrerako irizpidea baitute: araudi akademikoak, irakaskuntza-gidak, egutegiak, ordutegiak, eskura dituzten zerbitzuei buruzko zehaztapenak eta abar.

3.- Irakasle eta Zerbitzuetako langileentzako informazioa:

Fakultateak honako tresna teknologiko hauek ditu, irakasle eta zerbitzuetako langileentzat dagoen informazioa kudeatzeko:

Hudle: (<http://hudle.huhezi.edu/>) Moodlen oinarrituriko plataforma bat da, eta fakultateko langile guztiek dute sarbidea bertara (irakasleek zein laguntza-langileek). Fakultateko informazio orokor guztia dago eskura: araudiak, egutegiak, eta abar; laguntza-zerbitzuei eta horiekin zerikusia duten prozesuei buruzko informazioa, ikerketa- eta transferentzia-proiektuei buruzko informazioa...

Kude: (<http://kude.mondragon.edu/>) kalitatearen barne bermerako sistema kudeatzeko tresna bat da, eta sistema horren informazio guztiak biltzen ditu: prozesuak, prozedurak, adierazleak... Horien analisiak egiten dira (adierazle-panelen bitartez), bai eta Segimendu eta Akreditazio Txostenak ere.

Arasa: (<http://arasa.huhezi.mondragon.edu/>) dokumentu-kudeatzailea, zeinaren bitartez fakultateko dokumentazio guztia kudeatzen baita. Historiko gisa erabiltzen da, eta Hudleren osagarria da.

Dedikazioak: (<http://dedikazioak.huhezi.edu/>) irakasleen eta laguntza-langileen dedikazio-orduak kudeatzeko tresna da. Horrez gainera, proiektuen lan-kargak ere kudeatzen ditu.

Curriculumak: (<http://193.146.78.6:8080/CurriculumMU/>) irakasleen eta laguntza-langileen curriculumak kudeatzeko tresna da.

I.2.2.-Etorkizuneko ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interes-agenteeek erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete.

Webgunean eskura dagoen informazioa aldatuz eta hobetuz joan da azken urteetan. Ikasketen inguruko informazio guztia agertzen da bertan. Titulazio bakoitzaren barruan hainbat datu argitaratzen dira urtero.

I.2.3.-Ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua ekuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.

Webgunean eta moodle plataforman eskura dagoen informazioaz gain, ikasturteko lehen egunean harrera-plan bat egiten da fakultatean bertan. Egun horretan ikasleak fakultatera hurbiltzen dira eta titulazioetako koordinatzaileek hainbat informazio ematen diete ikasleei: graduaren ezaugarri orokorrak,, graduen antolaketa, Huhezi-n funtzionatzeko argibideak, Huhezi-ko gainontzeko ikasketen inguruko informazioa, ikasleen partaidetza, Larrialdietarako Plana eta abar.

Online ikasketen kasuan, Harrera eguna desberdina izaten da. Koordinatzaileak ematen dieten informazioaz gain, plataformaren inguruko formazio saio bat jasotzen dute ikasleek. Bertan, plataformaren beraren eta erabili daitezken tresnen inguruko tailerrak jasotzen dituzte.

I.3-IRIZPIDEA: KALITATEAREN BARNE BERMEKO SISTEMA (KBBS)

I.3.1.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuz eta aldizka berrikusiz informazioa eta titulazioak modu eraginkorrean kudeatzeko emaitzak jasotzea eta etengabe aztertzea bermatzen da.

Fakultateak Kalitatearen Barne Bermerako Sistema du (KBBS). Horren aplikazio-eremua titulazio ofizial guztietara iristen da.

Sistema hori ANECAren AUDIT programaren gidalerroen arabera eginda dago, 2007-2008 ikasturtean diseinatu zen, eta ANECAk balioespen ona egin zuen 2008ko irailean. 2013-2014ko ikasturtean, sistemaren ezarpena egiaztatu zen. Sistema horretan, prestakuntza-programen kalitate-bermea funtsezkoa da, eta prestakuntza-eskaintzaren plangintza, ebaluazioa eta garapenaren berrikusketa hartzen ditu aintzat, bai eta prestakuntza hobetzeko erabakiak hartzea ere.

KBBS dokumentaturik dago gidaliburu batean, non fakultatearen kalitate-politika eta kalitateari buruzko helburu orokorrak jasotzen diren, kalitate sistemak jasotzen dituen prozesuak ere jasotzen dira: titulazioei dagozkienak (diseinua, plangintza eta garapena, berrikusketa eta hobekuntza), ikasleei dagozkienak (informazioa, lanerako orientabidea eta lan-munduan txertatzea), langileei (irakasle-ikertzaileei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei) dagozkienak, eta baliabide materialen eta zerbitzuen kudeaketari dagozkienak.

Prozesu horiek guztiek KBBSaren mapa osatzen dute, prozesu laguntzaileetaz, prozesu estrategikoetaz eta hobetzeko prozesua elikatzen dira, hartara, sistema etengabe hobetuko dela bermatzen da. Horrez gainera, sistema kudeatzeko, fakultateak tresna informatiko bat du, KUDE izenekoa. Horren bidez kudeatzen da sistemari buruzko informazioa (prozesuen fitxak, dokumentazioa eta adierazleak), emaitzen analisia, eta jarraipen- eta akreditazio-txostenen bidezko kontu-emateak.

Titulazioen kudeaketari dagozkion prozesuak oso prozesu garrantzitsuak dira sisteman, eta honela daude sailkatuta: graduak kudeatzeko prozesuak, graduondoak kudeatzekoak, doktoretza, etengabeko prestakuntza kudeatzekoak eta azkenik, ikerkuntza eta transferentzia kudeatzekoak. Prozesu horiek guztiek beren adierazleak dituzte, eta, denen artean, adierazleen panela osatzen dute. Adierazleen jarraipena egiterakoan titulazio baten jarraipena eta emaitzen analisia egiten da.

Interes-taldeen gogobetetasunari dagokionez, gogobetetasun-maila neurtzeko, M2.1 prozesua dugu. Prozesu horren bidez, ikasleen, egresatuen eta langileen asetasun maila neuru eta aztertzen da.

I.3.2.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak tituluaren jarraipen-,aldaketa-eta egiaztapen-prozesua errazten du eta datu objetiboak aztertuz, tituluaren etengabeko hobekuntza bermatzen du.

Graduen kudeaketari dagozkion prozesuen artean, O2.1 prozesuan jasota dago ikasturtero titulazio guztiek Jarrapen Txosten bat egiten dutela, non titulazioaren hainbat aspektu eta hainbat adierazle aztertzen diren.

Adierazleen analisi horren bitartez, adierazleen ebaluazio jarraitua egiten da. Adierazleen, irakaskuntzaren eta kudeaketaren analisia egin eta gero hobetzeko proposamenak hautematen dira.

Txostenak aztertu egiten dira Fakultateko zenbait organotan, M3.1 prozesuak –Emaitzen segimendua eta analisia– adierazten duen bezala, eta Unibasqera bidaltzen dira, han ebalua ditzaten.

Ebaluazio horiek kasuan kasuko titulazioaren webgunean argitaratzen dira.

I.3.3.-Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza ahalbidetzen dituzten prozedurak biltzen ditu.

O2.1 prozesuak –prestakuntza programen kalitatea bermatzeko– eta O2.3 prozesuak –ikaslearentzako irakaskuntzaren garapena– bide ematen dute titulazio bakoitzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak diseinatzeko, ezartzeko, neurtzeko eta hobetzeko.

Prozesu horien bidez bildutako adierazleak eta ebidentziak aztertzen dira Graduetako Batzordeetan eta Graduko Lan Taldean. Azterketa horri esker, indarguneak eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzen dira, planifikatzeko eta hurrengo ikasturte akademikoan inplementatzeko.

TITULUAREN KUDEAKETA" DIMENTSIONAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUANTITATIBOA

	AZPI-IRIZPIDEA	A	B	C	D
I.1.1	Ikasketa Planaren ezarpena eta programaren antolamendua egiaztapen-memorian eta/edo geroago egindako aldaketetan jasotzen diren tituluari lotutako gaitasunen eta helburuen profilarekiko koherenteak dira.	✓			
I.1.2	Definitutako egreso-profikak garrantzitsua izaten jarraitzen du eta eremu akademikoaren zientifikoarekin eta profesionalaren baldintzen arabera eguneratua dago.		✓		
I.1.3	Tituluak irakaskuntzako koordinazio-mekanismoak biltzen ditu, ikasleei esleitzen zaien lan-karga eta denbora-plangintza egokiak izatea ahalbidetuz eta ikaskuntza-emaizak lortzea ziurtatuz.	✓			
I.1.4	Aplikaturako onarpen-irizpideek ikasleek ikasketa hauek hasteko behar duten sarrera-profil egokia izatea ahalbidetze dute eta haiek aplikatzearekin egiaztapen-memorian eskaintzen den plaza kopurua errespetatzen da.	✓			
I.1.5	Araudi akademikoak modu egokian aplikatzen dira, errendimendu akademikoko adierazleen balioak hobetzea ahalbidetuz.	✓			
I.2.1	Tituluaren arduradunek prestakuntza-programaren ezaugarriei eta haren garapenari eta emaitzei buruzko informazioa egokia eta eguneratua argitaratzen dute.	✓			
I.2.2	Etorkizuneko ikasleek eta Estatuko eta nazioarteko bestelako interes-agenteei erabakiak hartzeko beharrezkoa duten informazioa erraz lor dezakete.		✓		
I.2.3	Ikasleek ikasketa-planari eta aurreikusitako ikaskuntza-baliabideei buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko aukera izaten dute dagokion unean.		✓		
I.3.1	Kalitatearen Barne Bermerako Sistema inplementatuz eta aldizka berrikusiz informazioa eta titulazioak modu eraginkorrean kudeatzeko emaitzak jasotzea eta etengabe aztertzea bermatzen da.	✓			
I.3.2	Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak tituluaren jarraipen,-aldaketa-eta egiaztapen-prozesua errazten du eta datu objektiboak aztertuz, tituluaren etengabeko hobekuntza bermatzen du.	✓			
I.3.3	Kalitatearen Barne Bermeko Sistema inplementatuak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren kalitatearen ebaluazioa eta hobekuntza ahalbidetzen dituzten prozedurak biltzen ditu.	✓			

II.- DIMENTSIOA: BALIABIDEAK

II.1.- IRIZPIDEA: LANGILE AKADEMIKOAK

II.1.1.- Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperientzia eta irakaskuntza-etaikerketa-kalitatea egokia ere.

Graduaren izaera bermatzeko, maila akademikoan eta definitutako konpetentziekiko irakasleen esperientzia profesionala, ikertzaile zein hezitzaile bezala egokia da.

Praktiken tutoretza dagokien pertsonal akademikoak esperientzia egoki eta nahiko dauka. Aurrez esan bezala, praktikaldi bakoitza materia batekin lotuta dago eta materetako tutorea da ikasleen praktiken jarraipena egiten duena praktiketako koordinatzailearekin batera.

Gradu bukaerako lanerako, graduako pertsonal akademikoak gradu bukaerako lanen tutoretzarako dedikazio bat esleituta dauka. Tutoreen esleipen prozesua aipamenen beharren arabera burutzen da.

Pertsonal akademikoaren egituran ez da aldaketa esanguratsurik eman Graduaren ezarpenetik. Egon diren moldaketak pertsonal akademikoari dagozkion ohiko aldaketak izan dira.

II.1.2.- Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute.

Urte urte gradua baldintza berdinetan emateko aukera errazten duen pertsonal akademiko egongokorra daukagu. Irakaskuntzari dagokionez lan kargaren esleipena kooperatibako barne araudiaren arabera esleitzen da.

II.1.3.- Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.

Fakultateko antolakuntza-sistemak aukera ematen dio pertsonal akademikoari pedagogian prestatzeko eta eguneratzeko, eta horretara bultzatzen du honako prozesu hauen bitartez:

-Irakasle eta barne-ikertzaile izateko prestakuntza-plana Fakultateko irakaskuntza-langile guztientzat da, eta eremu akademikoan eta ikerkuntzakoan dauden prestakuntza-premietatik abiatuta diseinatzen da, antolakuntza-sistema osatzen duten arlo bakoitzaren premiak hauteman ondoren.

-Lerroen baitako koordinazioa. Lerroen xedea zera da, haiek osatzen dituztenen garapen pertsonala eta profesionala bermatzea, Lerro bakoitzean artikulatzen diren zenbait prozedura eta mekanismoren bidez: ikerketa-proiektuak, transferentzia-proiektuak, hezkuntza-foroetan parte hartzea eta komunikatzea, eta banan-banako prestakuntza-programak.

-Fakultateko Jardun Pedagogiko eta Ikerketa egunak. Egun hauen xedea zera da: fakultatearen hezkuntza proiektuaren segimendu eta ebaluaziotik

sortutako prestakuntza-premiak zehaztea eta haiei erantzutea. Fakultateko irakasle guztiek hartzen dute parte mintegian.

II.1.4.-Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.

2009an onartutako egiaztapen memoriak ez zuen gomendiorik luzatu.

II.2.-IRIZPIDEA:LAGUNTZA-LANGILEAK, BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK

II.2.1.-Prestakuntza-jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.

Titulazioaren sostengua zerbitzuei dagokionez hiru arlo handitan banatzen da. Honakoak dira:

1. Zerbitzu akademikoak: ikasle eta irakasleen zerbitzura dago eta ikaste irakaste prozesuaren kudeaketa akademiko-administratiboaren ardura dauka (espediente akademikoak, kalifikazio aktak, kredituen errekonozimendu eta transferentzia, notak, ziurtagiriak, Gradu Bukaerako Lanak, ...).

2. Administrazio eta finantza arloak: finantza eta ekonomia baliabideen administrazio, kudeaketa eta jarraipenarekin zerikusia duten betebeharrak kokatzen dira hemen. Balantzearen oreka, fidagarritasuna, zinezkotasuna eta legalitatea bermatzea dagokio eremu honi. Baita sarrera eta irteeren kontuak, diru fluxuen egoera, zergen kudeaketa eta beste tramite fiskalak. Era berean, materialen inbentarioaren doikuntzaren eta produktu eta zerbitzuen planifikazio eta erosketen kudeaketa ardura izango du. Bukatzeko, administrazio socio-laboral egokiaren bermatzaile da, langile, bekadun, azpi-kontratadun, onuradun eta ikasleen legezko estaldura eta gizarte prestazioa ziurtatuz.

3. Baliabide didaktiko materialen arloa: eraikinen kudeaketari dagokion alderdi guztiak kokatzen dira hemen. Gela eta multimedia guneen mantenu eta ekipamendua, garbiketa zerbitzua, informazioa, telefonia, azpiegitura teknologiko eta informatikoak... baita, baliabide didaktikoen kudeaketa, hala nola, Biblioteka erabilera didaktikoan duten beste baliabide teknologikoen (portatilak, kamarak, gelak, ...) mailegu zerbitzua

II.2.2.-Baliabide materialak ikasle kopuruari eta tituluan progrmatutako prestakuntza-jarduerei egokituta daude.

Fakultatea 2 campusek osatzen dute: Aretxabaletan bat eta Eskoriatzan bestea. Eskoriatzako campusa bi eraikinek osatzen dute, Dorletako eraikinak 2000m² ditu (500m² soilaruko) eta Nagusiak berriz, 5544m² (1848 m² solairuko). Aretxabaletako campusari dagokionez, fakultatearen eraikinak 3228,69m²ko hedapena du (1219,13m² ditu beheko solairuak eta 955,82m² 1. eta 2. solairuek). Eraikin hau 2012-2013 ikasturte akademikoan inauguratu zen. Fakultateko ikasle guztiek bi campusetako zerbitzuak erabiltzeko aukera dute.

Bi campusek betetzen dituzte irisgarritasun eta segurtasun arauak eta komunak zein igogailuak daude denontzako erabilgarri. Eskoriatzako kanpusean, Nagusia eraikinean igogailua solairu guztietara iristen da eta komun egokituak daude solairu guztietan- Dorleta eraikinean ere, igogailua solairu guztietara

iristen da eta komun egokituak daude behe eta bigarren solairuan. Aretxabaletako kanpusari dagokionean, hiru salairuetara iritsen den igogailua dago ta egokitutako komunak ere hiru solairuetan daude. Ikasle zein langileen sarbidea kontrolatuta dago bi kanpusetan txartel elektronikoaren bidez.

Mantenimendu zein errebisio mekanismoak bermatzeko, fakultateak S.2.1 prozesua (Zerbitzu, ekipamendu eta instalazioen kudeaketa) du. Prozesuaren helburu nagusia da planifikatzea eta bermatzea HUHEZIK eskaintzen dituen zerbitzu zein ekipamendu guztiak ikaste-irakaste prozesuen garapenerako modu egoki baten eskaini eta mantentzen direla.

II.2.3.-Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzialen kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira.

Modalitate erdi-presentzialari dagokionez, Mondragon Unibertsitateko online plataforma erabiltzen da eta erabiltzailearen laguntza zerbitzua (ELZ) dago, ordutegi malguarekin, postaz zein telefono bidezko intzidentzia teknikoetan esku-hartzeko. MUko online taldeak kudeatzen du plataforma Mondragon Unibertsitateko fakultate guztietarako.

Plataformaren baitan ikasleak badu informazio orokorra deritzon atal bat. Atal horretan ikasleak plataformaren erabileraren inguruko informazioa (bideo tutorialak, plataformaren sarbidea, ikasketa kolaboratiboak egiteko tresnak partekatzen dira, beste informazio batzuekin batera) aurki dezake. Hala nola, gune horretan dagoen foroaren bidez, zabaltzen da hainbat informazio plataforman egon daitezkeen intzidentziaren inguruan.

MU on-line 10 gela birtualez hornituta dago, eta beronek online ikasketetan in praesentia biltzea ahalbidetzen du, banakako eta taldekako tutoretzen bidez, talde lanerako erraztasuna eskainiz eta ikasleen arteko harremana sendotuz.

Materia bakoitzak gidaliburu zehatza du. Bertan, ikasleak materia bakoitzean landuko diren konpetentzia, jarduera, eduki eta ebaluazio moduak zehazten ditu. Era berean, plataforman bertan eskaintzen zaizkio ikasleari materia aurrera eramateko jarraitu beharreko baliabide didaktiko guztiak.

II.2.4.-Eskura jartzen diren laguntzarako zerbituzak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako orientazioko zerbituzak gaitasunei eta modalitateari egokituta daude..

Tutoretza prozesuarekin batera, eta ikasketen amaieran izan ditzaketen irtenbideak ezagutzen joateko, 4. mailan Orientazio Saiok antolatzen dira. Bertan, gure inguruan duten eskola sare desberdinak aurkezten zaie; horrekin batera, Fakultatean ikasten jarraitzeko edota kanpoan -atzerrian- lanean aritzeko zein ikasketak egiteko egon daitezkeen bideak eta aukerak ere antzematen joateko informazioa eta laguntza eskaintzen zaie. Aldi berean, ikasle ohien testigantzak jasotzen dituzte, egindako ibilbidea ezagutzeko eta euren kezak, zalantzak plazaratu ahal izateko.

II.2.5.-Tituluak nahitaezko kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.

Ikasleek 2., 3. eta 4. mailan dituzte derrigorrezko praktikak. 2.mailako praktikek 8 ECTS dituzte, 3. mailakoek 6 ECTS eta 4.mailakoek 30 ECTS. Practicum proiektu orokorra Graduaren helburuekin bat datorrela adierazteko eta modu positibo batetan baloratzeko ezaugarriak honakoak dira:

- HO26 prozesuren arabera egiten da kanpo praktiken kudeaketa.
- Praktiken planifikazioa, kudeaketa eta arautzea; Practicum Kudeaketa Taldearen bidez egiten da, momentu oro era koordinatu batean Gradu Batzordearekin. Kudeaketa taldeak ondoren praktiketako tutore mintegien bidez koordinatzen ditu eginbeharrak.
- Ikasturte akademiko bakoitzean egiten diren praktikek lotura zuzena dute ikasturteko materietarako zehazten diren ikaste emaitzekin.
- Kanpo praktiken erregulazioa hurrengo prozeduren bidez egiten da: ikasleekin Practicum mintegiak egiten dira (praktiken aurretik, praktiketan daudela eta praktiken ostean), jarraipena online egiten dute fakultateko praktiketako tutoreek, ebaluazio prozesu ezberdinen bidez ikasleen kompetentzien jarraipena egiten da; ikasleek asetahun inkestak betetzen dituzte; zentroetako tutoreek ikasleen garapena ere ebaluatzen dute bai eta asebetetze maila; Practicum mintegietan ere prozesuaren eta kalitatearen barne ebaluazioa egiten da (O2601).
- Praktikak EAEko zein Nafarroako sare publiko, pribatu zein kontzertatuko edozein zentrotan egin daitezke. Izan ere, fakultateak jarraian datozen erakundeekin sinatu ditu hitzarmenak:
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Saila...
- Ikastolen Elkarteak
- Kristau Eskola

II.2.6.-Unibertsitateak egiaztapen-memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta jarraipen-txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu dira.

Egiaztapen memoria biltzen diren konpromisoak bete dira eta baita jarraipen txostenetan zehaztutako gomendioak ere.

BALIABIDEAK" DIMENTSIOAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKUNTATIBOA

AZPI-IRIZPIDEA		A	B	C	D
II.1.1	Tituluko langile akademikoek titulurako eskatzen den kualifikazio akademikoko maila biltzen dute, baita esperentzia eta irakaskuntza-eta ikerketa-kalitate egokia ere.	✓			
II.1.2	Langile akademikoak nahikoak dira eta beren funtzioak garatzeko eta ikasleak artatzeko dedikazio egokia izaten dute.	✓			
II.1.3	Irakasleak tituluaren ezaugarriak kontuan hartuta eguneratzen dira, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuari modu egokian ekiteko moduan.	✓			
II.1.4	Unibertsitateak egiaztapen memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta Jarraipen Txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.	✓			
II.2.1	Prestakuntza jardueretan parte hartzen duten laguntza-langileak nahikoak dira eta tituluari lotutako langile akademikoen irakaskuntza-jarduerari ondo eusten diote.	✓			
II.2.2	Baliabide materialak ikasle kopuruari eta tituluaren programaturako prestakuntza jarduerari egokituta daude.	✓			
II.2.3	Urruneko modalitatean edo modalitate erdi-presentzialean ematen diren tituluen kasuan, titulu horiei lotutako azpiegitura teknologikoak eta material didaktikoak egokiak dira tituluari dagozkion prestakuntza jarduerak garatzeko eta gaitasunak eskuratzeko.	✓			
II.2.4	Matrikulatutako ikasleen eskura jartzen diren laguntzarako zerbitzuak eta orientazio akademikoko, profesionaleko eta mugigarritasunerako orientazioko zerbitzuak tituluari dagozkion gaitasunei eta modalitateari egokirura daude eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalbidetzen dute.	✓			
II.2.5	Tituluak nahitaezko kanpo-praktikak egitea biltzen duen kasuetan, praktikak aurreikusitakoaren arabera planifikatzen dira eta tituluak biltzen dituen gaitasunak eskuratzeko egokiak dira.	✓			
II.2.6	Unibertsitateak egiaztapen memorian biltzen diren konpromisoak eta tituluaren egiaztapen-,baimen-eta Jarraipen Txostenetan zehaztutako gomendioak gauzatu ditu.	✓			

III.-DIMENTSIOA: EMAITZAK

III.1.- IRIZPIDEAK: IKASKUNTZA-EMAITZAK

III.1.1.-Prestakuntza-jarduerak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak eta ebaluazio-sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak lortzeko egokitu daude.

Mondragon Unibertsitateak 2017-2018 ikasturtean MENDEBERRI 2025 proiektuaren baitan, bere hezkuntza proiektua berritzeko prozesua jarri zuen martxan. Bere helburua, *"Aurrera begira, Mondragon Unibertsitateko Mendeberrri hezkuntza ereduaren oinarritzko ardatzak gaurkotzea"* (MENDEBERRI 2025:12) delarik. Hezkuntza proiektu hau ardatz izanik, titulazioan ordurarte ardatzak ziren hezkuntza proiektuaren ezaugarrien inguruko hausnarketa prozesu bat zabaldu da 2017-2018 ikasturtean. Graduako profil profesionaletik abiatuz, kompetentzia eta ikaste emaitzen mapa eguneratzeko lan bat egin da eta mapa honetan oinarrituz 1. mailan erronketan oinarritutako metodologiá martxan jarri da proiektu pilotu moduan, curriculumak ikaste-emaitzetan oinarritzen da eta arloak modu isolatuan landu beharrean, diziplinarteko ikuspegi batetik lantzen dira.

Mendeberrri hezkuntza proiektuaren baitan, ebaluazio jarraia gure praktika hobetzeko giltzarria izan da. Honek ekarri digu, besteak beste, ikaste emaitzak zehaztea, kompetentzien adierazle behagarri eta ebaluagarri bezala ulertzea. Ondoren lan munduan praktika profesionalaren bidez garatuko dituzten kompetentzietarako bide dira ikaste-emaitzak.

Gradu bukaerako lana da graduaren amaiera identifikatzen duen prozesua. Ikasleak, esku-hartze, berrikuntza edo ikerketa bat egiten du bere profil profesionala eta pertsonalarekin bat datorrena. Lan hau aurrera eramateko ikasleak gradu osoan zehar landutakoa bateratzen du ikuspegi kritikotik. Tutorearen lana garrantzitsua da gradu bukaerako lanean ere, tutorearen bidaidetzak lagunduko baitio ikasleari arrakastaz lana garatzen; denboraren kudeaketarako eta kalitatea bermatzeko gakoak emanez. Lanaren defentsa, gaian adituak diren mahaikideen aurrean egiten da, ikasleak egindako lanak helburuak betetzen dituela ziurtatzeko.

II.1.2.-Lortutako irakaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi Mailako Hezkuntzarako kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokitu daude.

Bereziki, arazoetan, kasuetan eta proiektuetan oinarritutako metodologiak erabiltzen dira. Horiek ikasleari materia bakoitzean eraikitako ezagutza etorkizunean irakasle bezala aurkituko dituen egoera eta testuinguru ezberdinetan erabiltzea eskatzen diote. Bestalde, praktiken bidez ikasleak lanbidean aurki ditzazken egoera ezberdinak lehenengo eskutik bizitzeko aukera izango du. Era berean eta 4. mailako praktiketan zentratuz, ikasleak aukera izango du testuinguru konplexuetan ikasturtean zehar garatutako materietan lortutako ezagutzaren bidez diseinatutako proposamen didaktikoak martxan jartzeko. Gradu Bukaerako lanak ikasleari eskatuko dio errealitatearen diagnostiko bat egitea, arazo bat identifikatzea eta horri aurre egiteko proposamenak eraikitzea bere profilaren hobekuntza ildo bezala planteatuz. Hori guztia nola ez, marko egokian kokatu beharko du eta guztiaren defentsa egin epaimahai baten aurrean. Ikasleak tutore bat izango du bidaide bezala baina lan honek ikasleari autonomia handia eskatzen dio.

III.2.-IRIZPIDEA: GOGOBETETZE ETA ERRENDIMENDU ADIERAZLEAK

III.2.1.-Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera egokia da, titulua txertatzen den gai-ereduarekin eta ingurunearekin bat datorrena.

Onarpen eta aldaketa memorietan finkaturiko adierazleen jarraipen estua egiten da urtero eta bertan ezarritako tasak mantentzen dira.

III.2.2.-Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeen gogobetetze maila egokia da.

Ikasleen gogobetetzeari buruz, azken lau urteetako gogobetetze tasa 7,5 puntuaren inguruan dago, aurtengoa 7,84koa izanik. Beraz, emaitza oso positiboa dela ondorioztatzen da. Balorazio kualitatiboa ere jasotzen da kurtso amaierako mailaz mailakako talde eztabaiden bidez. Bertatik ateratzen diren ondorioak ere positiboak dira. Irakasleei dagokionez, ez da titulazio bakoitzeko gogobetetze tasa bat kalkulatu. Titulazioaren ebaluazio kualitatiboa egiten da ikasturte bakoitzaren amaieran, tutore mintegi eta gradu koordinazio lan taldean. Praktiketako kanpo tutoreen gogobetetze tasa ere oso positiboa da. Egresatuen gogobetetzea 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturtean kalkulatu zen eta gogobetetze tasa 7 punturen inguruan dago beraz, emaitza hau ere oso positiboa dela ondorioztatzen da.

III.2.3.-Tituluko egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak tituluari dagokion testuinguru sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira.

2017-2018 ikasturteko daturik oraindik ez daukagu. Orain jaso ditugu Ikerfelek, 2016-2017 ikasturtean amaitu zuten ikasleen eginiko inkestaren emiatzak eta ikasleen %75-a daude lanean edo lanean eta ikasten. Datua aztertu eta lan egoera zein den aztertu ondoren, emaitza ona dela ondorioztatzen da.

"EMAITZAK" DIMENTSIOAREN JARRAIBIDEEN BALIOESPEN ERDIKANTITATIBOA.

	AZPI-IRIZPIDEA	A	B	C	D
III.1.1	Prestakuntza-jarduerak eta erabilitako irakaskuntza-metodologiak eta ebaluazio-sistemak egokiak dira eta aurreikusitako ikaskuntza-emaitzak lortzeko helburuari zentzuzko moduan egokituta daude.	✓			
III.1.2.	Lortutako ikaskuntza-emaitzek prestakuntza-programaren helburuak betetzen dituzte eta programa horren Goi-mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparruko mailari egokituta daude.	✓			
III.2.1.	Tituluaren datu eta adierazle garrantzitsuenen bilakaera egokia da, hain zuzen ere titulua txertatzen den gai-eremuarekin eta ingurunearekin bat datorrena, eta hasi berriak diren ikasleen ezaugarriekin koherentea.	✓			
III.2.2.	Ikasleen, irakasleen, egresatuen eta bestelako interes-taldeen gogobetetze-maila egokia da.	✓			
III.2.3.	Tituluko egresatuen laneratze-mailaren adierazleen balioak tituluari dagokion testuinguru sozioekonomikorako eta profesionalerako egokiak dira.				

3.-HOBKUNTZA PROPOSAMENAK ETA INDARGUNEA (Barne Kudeaketa)

HOBKUNTZA PROPOSAMENAK ETA INDARRAK. JARRAIPENA

III.1.HOBKUNTZA PROPOSAMENEN JARRAIPENA

	JATORRIA	PROPOSATZEN DU	PROPOSAMENA	PROPOSAMEN DATA	EKINTZA	EXEKUZIO DATA	ITXIA	EKINTZA IKASTURTEA
1	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Titulazioko Koordinatzailea	Ikasturteko tutoreen formazio plana diseinatu eta aurrera eraman.	2017-07-17	Hiru astetik behin formazio saioak antolatu dira kanpoko adituen eskuetatik. Formazioaren gaia, batez ere, bakarkako tutoretza saioak bideratzeko estrategietara bideratua izan da. Formazioa 6 hilabetekoa izan da. 18-19 ikasturtean formazioa taldeko tutoretzetara bideratzea ikusten da beharrezkoa.	2018-07-10	Ez	17-18
2	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Titulazioko Koordinatzailea	Tutoretza programa berria 1. mailan inplementatu.	2017-07-17	Plangintza inplementatu da. Ikasturteko tutore guztiak parte-hartu dute eta ondo baloratu dute.	2018-07-10	Bai	17-18
3	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Titulazioko Koordinatzailea	Ikasleen jarraipenerako tutoretza saioak berformulatu eta beharko den informazioa kudeatu ahal izateko tresna diseinatu eta inplementatu.	2017-07-17	Bakarkako tutoretza saioak birformulatu dira ikasturteko tutoreekin batera. Egutegietan sartu dira ikasturtean zehat bi momentu ezberdinetan. Informazioa jasotzeko ikasturteko tutoreak taldean sartzen den irakasle bileretaz zein ebaluazio bileretaz baliatuko da.	2018-07-10	Bai	17-18
4	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Titulazioko Koordinatzailea	Online ereduaren inguruko hausnarketa egitea	2017-07-17	-Ikasle batek burututako Online ebaluazioaren inguruko ikerketa proiektua aurrera eraman da. -Ikasle baten MBLa: "Challenge Based Learning in online Teacher Education Degrees: an analysis of students' Learning experience -Egutegiaren birplanteamendua.	2018-07-10	Ez	17-18
5	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN	Titulazioko Koordinatzailea	Online-eko tutoretzaren inguruko hausnarketa aurrera eraman	2017-07-17	Tutore guztiak online tutoretzaren inguruko formazioa. Jardun Pedagogikoak honen inguruko hausnarketa egiteko erabili dira.	2018-07-10	Bai	17-18

eta AKREDITAZIO TXOSTENAK							
---------------------------	--	--	--	--	--	--	--

III.2. TXOSTEN HONETAN IDENTIFIKATUTAKO HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK (2016-2017 ikasturtean identifikatutakoak)

	JATORRIA	PROPOSATZEN DU	PROPOSAMENA	PROPOSAMEN DATA	EKINTZA
1	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Titulazioko Koordinatzailea	Ikasturteko tutoreen formazio plana diseinatu eta aurrera eraman.	2018-07-20	17-18
2	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Titulazioko Koordinatzailea	Tutoretza programa berria 2. mailan inplementatu.	2018-07-20	17-18

III.3. IDENTIFIKATUTAKO INDARGUNEAK

	DATA	PROPOSATZEN DU	JATORRIA	INDARGUNEA
1	2018-07-20	Titulazioko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Eskaintza erdi-presentziala. Ikasleak denbora optimizatzeko, ikasturteko egutegiaren berrantolaketa egin da eta asebetetze maila altua izan du.
2	2018-07-20	Titulazioko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Eskaintza erdi-presentziala. Ikaslearen egoeraren eta beharren arabera, matrikula pertsonalizatuak egin dira eta hau oso ondo baloratu da.
3	2018-07-20	Titulazioko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Eskaintza erdi-presentziala. Harrera astea birplanteatu da eta ikasleen aldetik asetasun maila altua izan da.
4	2017-07-21	Titulazioko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	1.mailako tutoretzaren inplementazioa arrakastatsua izan da
5	2017-07-21	Titulazioko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	Urtez urte mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleen kopurua igotzen doa.
6	2017-07-21	Titulazioko Koordinatzailea	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	4. mailako ikasleekin CVa, marka pertsonala eta elkarrizketen inguruko tailerra antolatu zen eta arrakasta izan zuen ikasleen artean.
7	2017-07-21	Titulazioko	Gradu edo Masterreko Koordinazio Batzordearen	Fakultatean antolatzen diren marketinarekin lotutako jarduera ezberdinetan

		Koordinatzailea	ebaluazioaren ondorioz eratorritakoak. JARRAIPEN eta AKREDITAZIO TXOSTENAK	ikasleen parte-hartzea areagotzen doa.
--	--	-----------------	----------------------------------------------------------------------------	----------------------------------------

4.- TITULUAN EGINDAKO ALDAKETAK

IV.1. EGIAZTAPEN-/BAIMEN-TXOSTENETAN GOMENDATUAK

EZ DAGO

IV.2. JARRAIPEN TXOSTENETAN GOMENDATUAK

EZ DAGO

IV.3 ZENTRO ARDURADUNAREN EKIMENEZ EGINDAKOAK

EZ DAGO

I ERASKINA. ADIERAZLEAK	14-15	15-16	16-17	17-18	Emitzen Balorazioa	Oharrak
Eskaintzen den plaza kopurua, guztira	125,00	125,00	125,00	125,00	●●●●	
Onarpen berriko matrikula kopurua lehenengo ikasturtean (EUS)	85,00	114,00	114,00	103,00	●●●●	
Unibertsitatera sarrera proba eginda sartutako ikasle kopurua	38,00	69,00	56,00	51,00	●●●●	
LH-tik sartutako ikasle kopurua	11,00	10,00	8,00	21,00	●●●●	
<25 urtetik gorakoaren sarrera-proba eginda sartutako ikasle kopurua.	0	0	0,00	0,00	●●●●	
Gainontzeko sarbide bat duten ikasle kopurua	36	35	50,00	31,00	●●●●	
Gutxienezko sarrera nota	5,01	5,09	5,29	5,92	●●●●	
Atzerriko jatorria duten matrikulatutako pertsona kopurua	0,00	0,00	0,00	0	●●●●	
Titulazioaren betetze maila	1,37	0,91	0,91	0,82	●●●●	
Bekadun ikasle kopurua (emakumezkoak)	52,00	47,00	51,00	56,00	●●●●	
Bekadun ikasle kopurua (gizonezkoak)	6,00	5,00	6,00	5,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaileak (emakumezkoak)	30,00	42,00	43,00	29,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaileak (gizonezkoak)	14,00	14,00	14,00	13,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaile doktoreak (emakumezkoak)	11,00	17,00	17,00	16,00	●●●●	
Irakasle eta ikertzaile doktoreak (gizonezkoak)	7,00	8,00	7,00	6,00	●●●●	
Irakasle lantaldearen iraunkortasuna	-	%80,00	%79,00	%78,00	●●●●	
Irakaskuntza egiaztatpena duen irakasle kopurua	-	%64,00	%70,83	%86,36	●●●●	
Ikasle/irakasle ratioa	7,59	5,82	5,96	8,34	●●●●	
Errendimendu tasa	95,29	95,53	95,70	97,72	●●●●	
Uzte tasa	4,70	3,50	6,14	1,94	●●●●	
Graduatze tasa	85,82	80,73	76,74	91,83	●●●●	
Arrakasta tasa	98,51	97,92	98,68	99,74	●●●●	
Ebaluazio tasa	96,73	97,55	96,98	97,97	●●●●	
Eraginkortasun tasa	98,41	99,16	96,61	98,16	●●●●	
Bidalitako ikasleen mugikortasuna	33,00	40,00	27,00	49,00	●●●●	
Jasotako ikasleen mugikortasuna	4,00	4,00	10,00	6,00	●●●●	
Ikasleen gogobetetze maila	7,58	7,43	7,68	7,84	●●●●	
Egresatutako pertsonen gogobetetze maila	7,47	-	-	-		Oraindik ez dira datu hauek kalkulatu.
Enplegu tasa (emakumezkoak)	81,94	-	%75	-		
Enplegu tasa (gizonezkoak)	70,00	-		-		
Langabezia tasa (emakumezkoak)	18,05	-	%16	-		
Langabezia tasa (gizonezkoak)	30,00	-		-		
Ahokatutako enpleguaren % (emakumezkoak)	62,71	-	-	-		
Ahokatutako enpleguaren % (gizonezkoak)	71,43	-	-	-		

Emitzak ebaluatzeko, honako kodea erabiliko da:



Adierazleak azaltzen duen joera bat dator espero zen emaitzarekin. Praktika onak identifika daitezke.



Alde txiki bat dago adierazleak azaltzen duen joeraren eta espero zen emaitzaren artean. Beharrezkoa izan daiteke neurriren bat hartzea.



Alde nabarmena dago adierazleak azaltzen duen joeraren eta espero zen emaitzaren artean. Beharrezkoa da ekintza-zuzentzaileak bideratzea.